

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

**ELAren IRITZIA PENTSIOPEN ERREFORMA ETA BESTE ERABAKI
BATZUK JASOTZEN DITUEN MARTXOAREN 15EKO ERREGE-
LEGE DEKRETUARI BURUZ**

O- SARRERA

Joan den ostiralean, Rajoyren gobernuak 5/2013 Errege Lege-Dekretua, martxoaren 15ekoa, onartu zuen, zeinaren xedea "adin aurreratuko langileen bitzta laboralaren jarraipena eta zahartze aktiboa" erraztea baita; hurrengo egunean argitaratu zuten BOEn.

Pentsioen erreforma berri hau Espainiako gobernuak urriaren 31n iragarri zituen aldaketen fruitu da; gobernuak Kongresura bi txosten igorri zituen: erretiro aurreratuari partzialari buruzkoa, bata (errelebo-kontratua), eta erretiro-pentsioa jasotzearekin batera jarduera ordaindu bat egiteko aukerari buruzkoa, bigarrena. Halaber, beste murrizketa batzuk ere jaso dituzte eta pentsioetan epe laburrean are murrizketa gehiago izango dela iragarri dute.

I- DEKRETUKO NEURRI NAGUSIAK**Erretiro-pentsioa eta lana bateragarri egitea**

Arlo pribatuan lan egiten dutenek pentsioaren %50 jaso ahal izango dute lan eginda ere, honako ezaugarriekin:

Erretiratzeko ohiko adina bete izana (erretiro aurreratua hartzeko aukerarik gabe).

Pentsioaren oinarri arautzailearen %100 jasotzeko eskubidea izatea.

Egiten den beharra lanaldi osoan edo partzialean izan liteke.

Lanarekin bateragarri den erretiro-pentsioaren zenbatekoa dagokion kopuruaren edo pentsioaren gehieneko kopuruaren %50ekoa izango da.

Kotizazioa aldi baterako ezintasunari eta gertakari profesionali dagokiena izango da, besterik ez. Gainera, %8ko "solidaritate"

koitzazio bat ere ezartzen da (%6 enpresaren kontura eta %2, langilearen kontura).

Erretiro-pentsioaren zenbatekoa, pentsioa jasotzeko aukera aurreratzen denean

Zenbatekoan zigor bikoitza ezartzen da: ohiko koefiziente murriztaileez gainera, beste portzentaje bat ere aplikatuko da, eta honek pentsioa are gehiago murrizten du.

Horrela, **pentsio aurreratuaren edo partzialaren zenbatekoa erabakitzerakoan**, kasu bakoitzari dagozkion koefiziente murriztaileak aplikatzeaz gainera, lortzen den zenbatekoa ezingo da izan pentsioaren gehieneko zenbatekoa, ken aurreratzen den hiruhileko edo hiruhileko-zati bakoitzeko %0,5 baino handiagoa (hots, urteko %2).

Erretiro aurreratua

Erretiro aurreratua jasotzeko aukera ematen duen adina gehitu egiten da, kotizatu beharreko gutxienezko aldia luzatu egiten da eta oro har handitu egiten dira pentsioaren zenbatekoaren gaineko koefiziente murriztaileak:

Gaur egun erretiro aurreratua 61 urterekin har daiteke, borondatezko ez diren zergatiak badaude, eta 63rekin, borondatezkoa izatekotan. Erreformaren arabera, borondatezko ez diren kasuetan legezko adinaren gehieneko 4 urte aurreratu ahal izango da, eta 2 besterik ez, borondatezkoa denean. Erretiratzeko adina 67 urtekoa den heinean, horrek esan nahi du erretiro aurreratua 63 edo 65 urterekin hartu ahal izango dela, hots, orain baino bi urte beranduago.

Amaiera borondatezkoa denean gutxienez kotizatu beharreko epealdia 33 urtetik 35era luzatzen da.

Koefiziente murriztaileak handiagoak izango dira. Orain arte aurreratutako hiruhileko bakoitzeko %1,875eko koefizientea aplikatzen zen, 38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago kotizatuta izanez gero, eta %1,625ekoa hiruhileko bakoitzeko, 38 urte eta 6 hilabetetik gora kotizatuz gero.

Aurrerantzean honako koefizienteak aplikatuko dira:

Borondatezko zergatiak medio ez bada:

Hiruhileko bakoitzeko %1,875eko koefizientea, kotizazio aldia 38 urte eta 6 hilabete baino laburragoa izan bada.

Hiruhileko bakoitzeko %1,750eko koefizientea, kotizatu den epealdia 38 urte eta 6 hilabete edo gehiago eta 41 urte eta 6 hilabete bitartekoa izan bada.

Hiruhileko bakoitzeko %1,625eko koefizientea kotizatutako urteak 41 urte eta 6 hilabete eta 44 urte eta 6 hilabete bitartean badaude.

Hiruhileko bakoitzeko %1,500eko koefizientea, kotizatu den epealdia 44 urte eta 6 hilabete edo gehiago izan bada.

Erretiroa borondatez hartzen bada:

Hiruhileko bakoitzeko %2ko koefizientea, kotizazio aldia 38 urte eta 6 hilabete baino laburragoa izan bada.

Hiruhileko bakoitzeko %1,875eko koefizientea, kotizatu den epealdia 38 urte eta 6 hilabete edo gehiago eta 41 urte eta 6 hilabete bitartekoa izan bada.

Hiruhileko bakoitzeko %1,750eko koefizientea, kotizatutako urteak 41 urte eta 6 hilabete eta 44 urte eta 6 hilabete bitartean badaude.

Hiruhileko bakoitzeko %1,625eko koefizientea, kotizatu den epealdia 44 urte eta 6 hilabete edo gehiago izan bada.

Adibidez, 40 urtez kotizatu duen pertsona bati erretiroa bi urte aurreratzen badu bere pentsioa %1 gehiago murriztuko zaio, jubilatzeko arrazoi borondatezkoa ez bada, eta %2 gehiago, borondatezko erabakia dela jotzen badute (koefiziente murriztailea %13 ordez %14 edo %15 izango da, hurrenez-hurren).

Erretiro partziala (errelebo kontratua)

Kotizatu beharreko gutxieneko epealdia luzatu egiten da: orain arte 30 urte ziren, eta aurrerantzean, 33 urte.

Pentsioa jasotzen hasteko adina ere atzeratu egiten da. Orain erretiro partziala hartzeko aukera 61 urterekin hasten da. Aurrerantzean, mailaka, 33 urte kotizatuta errelebo-kontraturako aukera 65 urterekin hasiko da. 63 urterekin aukera izango da, baldin eta 36 urte eta 6 hilabetez kotizatu bada. Hau izango da aplikatu beharreko eskala:

Erretiro urtea	Erretiroa hartzeko eskatzen den epealdien arabera	unean kotizatutako araberaren arabera	33 urte kotizatuz gero erretiratzeko eskatzen den adina
2013	61 eta 33 hilabete	33 urte eta 3 hilabete edo gehiago	61 eta 2 hilabete
2014	61 eta 2 hilabete	33 urte eta 6 hilabete edo gehiago	61 eta 4 hilabete
2015	61 eta 3 hilabete	33 urte eta 9 hilabete edo gehiago	61 eta 6 hilabete
2016	61 eta 4 hilabete	34 urte edo gehiago	61 eta 8 hilabete
2017	61 eta 5 hilabete	34 urte eta 3 hilabete edo gehiago	61 eta 10 hilabete
2018	61 eta 6 hilabete	34 urte eta 6 hilabete edo gehiago	62 urte
2019	61 eta 8 hilabete	34 urte eta 9 hilabete edo gehiago	62 eta 4 hilabete
2020	61 eta 10 hilabete	35 urte edo gehiago	62 eta 8 hilabete
2021	62 urte	35 urte eta 3 hilabete edo gehiago	63 urte
2022	62 eta 2 hilabete	35 urte eta 6 hilabete edo gehiago	63 eta 4 hilabete
2023	62 eta 4 hilabete	35 urte eta 9 hilabete edo gehiago	63 eta 8 hilabete
2024	62 eta 6 hilabete	36 urte edo gehiago	64 urte
2025	62 eta 8 hilabete	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	64 eta 4 hilabete
2026	62 eta 10 hilabete	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	64 eta 8 hilabete
2027 eta ondorengoak	63 urte	36 urte eta 6 hilabete	65 urte

Erretiro partziala hartzen duenaren lanaldia luzatzen da. Gaur arte gutxienez %15 zen, eta aurrerantzean %25a.

Errelebatutako langilearen kotizazioa %100ekoa izango da, edozein dela ere lanaldia zenbateko murrizketarekin daukan. 2013an kotizazio-oinarria lanaldi osoari legokiokeen kotizazio oinarriaren %50a adinekoa izango da (orain %30ean dago). 2014 urtetik aurrera igarotzen den urte bakoitzeko %5 gehituko da, lanaldi osoko %100eko kotizazio oinarriara iritsi arte.

Iraunkortasun-Faktoreari buruzko Adituen Komitea sortzen da

Hilabeteko epean gobernuak aditu independentez osatutako Komite bat eratuko du, txosten bat egin dezan Gizarte-Segurantzaren sistemaren iraunkortasun-faktoreari buruz; txostena gero Toledoko Itunaren Batzordeari gorriko diote.

ELAk bere garaian salatu zuen CCOOek, UGTk, CEOk eta Zapaterok sinatu zuten akordioan, pentsio berriak murriztearekin eta erretiro adina 67 urtetaraino atzeratzearekin batera, aipatutako 'Iraunkortasun-Faktorea' ezartzen zela, zeinak murrizketa "automatikoak" ekarriko baitzituen. Faktore honek era guztietako atzerakadak zuzitzeko balio du, izan ere, hitzez-hitz esaten baitu "sistemaren oinarriko parametroak" berrikusiko dituztela bost urtean behin, 67 urtetako bizi-itxaropena gehitzen den heinean. Sistemaren oinarriko parametroek aldaketak hainbat arlotan ahalbidetzen dituzte: pentsioaren kalkulua, eguneratzea, erretiro-adina, etab.

55 urtetik gorakoentzako langabezia-laguntza

Orain arte langabezia-prestazioa edo -laguntza agortzen zuten 55 urtetik gorako pertsonen 55 urtetik gorako langabezia-laguntza jasotzeko eskubidea zuten, LAGSen %75a baino diru-sarrerara handiagorik ez bazuten (aparteko pagak salbuetsita), eta beste baldintza batzuk betez gero.

Aurrerantzean Rajoyren gobernuak laguntza hau gabe utziko ditu bizikidetzaren unitateko diru-sarrerak pertsona bakoitzeko LAGSren %75etik gorakoak badira (aparteko pagak salbuetsita, hots, 484na euro hamabi hiletan). Horrenbestez, 55 urtetik gorako pertsonaren

diru-sarrerak ez ezik aurrerantzean bizikidetzaren unitateko diru-sarrera guztiak hartuko dira aintzat.

50 urtetik gorako langileei eragiten dien kaleratze kolektiboak

Kaleratze kolektiboetan, 50 urtetik gorako langileen portzentajea plantillan dagoen adin talde bereko zatia baino handiagoa denean, 100dik gora langile dituzten enpresek diru kopuru bat jarri beharko dute langile horien prestazioak finantzatzeko. Hauek dira baldintzak:

Enpresak prozedura hasi aurreko bi urteetan etekinak lortu baditu.

Prozedura hasi eta hurrengo lau urtetako bitan etekinak lortzen baditu.

Hitzarmen	Kolektiboen	Batzorde
<u>Kontsultiboaren jardura</u>		

Errege-Dekretu hau indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean Autonomia-Erkidegoek ez balute osatu Hitzarmen Kolektiboen Batzorde Kontsultiboaren pareko hiruparteko organorik, edota Enplegu eta Gizarte-Segurantzako Ministerioarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatu ez badute Batzorde Nazional horrek Autonomia-Erkidegoan esku har dezan, Batzorde Nazionalak ebatzi ahal izango ditu hitzarmenak ez aplikatzeko eskariak, Autonomia-Erkidego bakarrean kokatuta dauden enpresei dagokienez.

Orain arte Batzorde Nazionalak hitzarmena ez aplikatzeko eskariei buruz ebazteko ahalmena zuen Autonomia-Erkidego bat baino gehiagotan kokatuta zeuden enpresekiko. Patronalak presioa eragin die Eusko Jaurilaritzari eta Nafarroako Gobernuari antzeko Batzorde bat osa zezaten, Autonomia-Erkidego bakarrean dauden

enpresek hitzarmena ez aplikatzeko derrigorrezko arbitrajea eskatzeko aukera izan zezaten.

Rajoyren gobernuak koska bat gehiago estutu ditu eskubide laboralak eta negoziazio kolektiboa, eta horretarako baliatu egin du ustez pentsioei buruzkoa baino ez zen errege-dekretu bat.

II- BALORAZIOA ETA ONDORIOAK

Hainbat zunda-globo askatu ostean, Espainiako gobernuak Errege-lege Dekretuaren prozedura antidemokratikoa baliatu da pentsioak murrizteko, bide batez negoziazio kolektiboko oreka are gehiago enpresarioen aldera eramateko eta epe laburrean pentsioetan murrizketa gehiago iragartzeko.

Beraz, Rajoyk martxoaren 15ean hartu dituen erabakiak borondate politiko argia islatzen dute: eutsi egingo dio bere lanari harik eta aberastasuna gero eta gehiago kapitalaren alde bana dadin. Biztanleria guztia pobretzeko eta gizarteko desberdintasuna areagotzeko erabakiak dira. Hortaz, inola ere onartu ezin diren erabakiak dira.

Gainera, paradoxikoa da gobernu berak joan den asteartean gazteentzako enplegu-plana delakoa aurkeztea eta hiru egun igarota Errege Lege-Dekretu bidez pentsioen erreforma ezartea, langileak 63, 65 edota 67 urtetik aurrera ere behar egitera bultzatuko dituen, erretiro-pentsio duin bat izateko eskubidea aitor diezaieten ¿Zein da lehentasuna? Enplegua sortzea? Kalitatezkoa?

Lehenengo esan beharrekoa: gobernuak kontrakoa sinestarazi nahiko balu ere, datu ofizialek adierazten dute gero eta jende

gutxiago erretiratzeko delako aldez aurretik edo jubilazio partziala medio. Gainera, erretiroa hartzeko batez besteko adina gero eta handiagoa da.

Erretiro aurreratua eragozteak eta murrizteak batik bat enplegurik gabe geratzen diren langilei egiten die kalte handienak.

55 urtetik gorakoak laguntzarik uztea immorala da.

Gazteen enpleguari ez dio onik egiten onartzeak Europar Batasuneko langabezia-tasarik handienak izanik (%17 Hego Euskal Herrian, %26 espainiar estatuan, Europako batez bestekoaren %10,7 aldean) aldi berean enplegua izan eta pentsioaren %50 jasotzeko aukera. Hau ez da zahartze aktiboa; aitzitik, gazte gehiago langabeziara eta inaktibitateara zigortzea da. Politika hau pentsio kaskarrak eta lan prekarioak lehenesten dituen filosofiaren fruitu da. Adineko pertsonak nolabaiteko duintasunez bizi ahal izango dira osasuntsun dauden artean. Bestela, pobrezia eta miseria izango da euren fatua.

Pentsioetan laster murrizketa gehiago erabakiko dela iragartzeak pentsa arazten du arlo honetako erasoak ez direla amaitu eta erortzear direla.

Erreforma honekin beste urrats bat egin dute sistema publikoa pribatuaren mesedetan desgaitzeko bidean. Eredu hau aspaldian hasi ziren Europako beste estatu batzutan aplikatzen, eta porrot egin du nonahi.

Orgia kapitalista honen erdian elkarrizketa soziala posible dela esaten jarraitzea patetikoa da, eta agerian uzten du apustu hori egiten duten sindikatuak antolakuntza eta aurrekontuei dagokienez dituzten arazoak; 2011ko pentsioen erreformari ere babesa eman zioten. Aldiz, Hego Euskal Herrian murrizketa haien kontrako greba orokor bat egin genuen.

Euskal langile-klasearentzat albiste ezin txarragoa ekarri du azken dekretazoak: berau baliatu dute hitzarmen kolektiboa aplikatu nahi ez duten enpresek derrigorrezko arbitrajera jotzeko aukera izan dezaten. Patronalak honetan ere irabazia ateratzen du, lan-baldintzak okertzeko aukera areagotzen baita. Begibistakoa da esparru honetan aukera bakarra dagoela: enpresaren baitan antolatzea eta indartzea.

Ustelkeria kasu oso larrietan murgilduta dagoen alderdi batek langile-klaseari egindako erasoari eusteak agerian uzten du defizit demokratikoa. Demokrazia eza eta eskubide sozial eta laboralen murrizketa eskutik doaz.

Horregatik, ELAk Errege Lege-Dekretu hau indargabetzea exijitzen du, eta inongo alderdi politikok ez dezala konbalidatzerakoan Parlamentuan alde bozkatu.

Halaber, ELAk eskatzen du eskubide laboral eta sozialei eragiten dien legedia Hego Euskal Herrian erabaki behar dela.